

3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialak Euskadiko governantzan duen partaidetza instituzionalaren mapa

Txostena

2024ko uztaila



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Egilea: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza eta Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektore Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1 artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektore soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

1	Sarrera.....	1
2	Lankidetza instituzionala EAEko Administrazio Orokorrarekin.....	2
2.1	Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.....	2
2.2	Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saila	2
2.3	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioen Saila	6
2.4	Osasun Saila.....	8
2.5	Lan eta Enplegu Saila	9
2.6	Lehendakaritza.....	10
3	Lankidetza instituzionala EAEko Administrazio Orokorrarekin: Arabako Foru Aldundia	11
3.1.	Gizarte Politiken Saila.....	11
3.2.	Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila	13
3.3	Kultura eta Kirol Saila.....	13
4.	Lankidetza instituzionala EAEko Administrazio Orokorrarekin: Bizkaiko Foru Aldundia	14
4.1.	Gizarte Ekintza Saila.....	14
4.2.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila	15
5.	Lankidetza instituzionala EAEko Administrazio Orokorrarekin: Gipuzkoako Foru Aldundia.....	16
5.1	Gobernantza Departamentua	16
5.2	Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua	16
5.3	Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola Departamentua.....	18
5.4	Diputatu Nagusia	18
1.	ERANSKINA: LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALEKO ORGANO ETA FORO EGONKORRAK ARLOAREN ARABERA.....	20

1 Sarrera

Txosten honen helburua da erakustea oro har zer ekarpen egiten duen Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak (EHSS) EAEko gobernantzan, erakunde publikoek eratutako hainbat organo eta foro iraunkorretan parte hartuz. Ikuspegi horri begiratuz, lankidetzak publiko-sozialaren intentsitatea eta garrantzia agerian ipin daitezke, presentzia nabarmena duen politika eta/edo zerbitzu publikoak diseinatu, garatu, jarraipena egin eta/edo ebaluatzen direnean. Azken batean, txostenaren xedea sektore horren zeregina azpimarratzea da, ez soilik esku-hartze sozialeko eragile baten modura, baizik eta, halaber, eragile politiko giltzarri baten modura gure erkidegoko gizarte-politikak hedatzen direnean, beste eragile batzuekin batera.

Ez da dokumentu sakon bat, EHSSk formalki parte hartzen duen espazio instituzional guztiak biltzen dituen. Aldiz, esan bezala, helburua erakustea da, ez sistematizatzea, eta partaidetza-espazioak identifikatzeko ariketa hauetara mugatu da: HSSk harreman historiko estua duen EAEko erakunde eta foru-erakundeen sailak. Hala, tokiko administrazioek sustatu eta EHSSk parte hartzen duen askotariko espazio ugari txosten honetatik at geratu dira. Alabaina, oso espazio garrantzitsuak dira EHSSrako, EAEko auzo eta udalerrietan ezarrita eta komunitateetan sustraituta dagoelako.

Hortaz, ikuspegia ez da osoa, baina nahikoa da EHSSk herrialde bidezkoago, solidarioago eta kohesionatuagoa eraikitzeke lanean duen inplikazio jarraituaz ohartzeko, espazio horietan parte hartuz. Jarraitua dela diogu, haietako batzuek 20 urte baitaramatzate lanean eratu zirenez geroztik.

Eraitza Eusko Jaurlaritzako eta hiru lurraldeetako hainbat sailek bultzaturiko 49 foro eta organismoen lagin bat da. Era berean, sailkapen-sistema gisa balio dute. Espazio bakoitzari buruzko fitxa labur bat prestatu da, datu hauekin nagusiki: izaera, funtzioak, EHSSko zer erakunde-motak osatzen duten (beste sektore batzuetako erakundeekin batera) eta esteka bat, informazio gehiago lortzeko.

Horrez gain, eranskin bat ere badu txostenak. Hartan, epigrafe bakoitzean bildutako informazioa jaso da, irakurtzeko garaian arinagoa den formatu batean.

Foro eta organismoen buruzko informazioa XII. Legegintzaldia amaitu baino zertxobait lehenago eskuratu da. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak sustatu eta txosten honetan jaso diren gobernantza-espazioak sailkatu dira legealdi honetan sailek erabilitako nomenklaturarekin.

2 Lankidetza instituzionala EAEko Administrazio Orokorrekin

2.1 Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila

ORGANOA	EKONOMIA- ETA GIZARTE-KONTSEILUA
Eratu zen urtea	1995
Deskribapena	Kontseilua Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren aholku-erakundea da, eta haren helburua da ekonomia- eta gizarte-interesen partaidetza gauzatzea EAEko ekonomia- eta gizarte-politikan. Zortzi lagunek arlo hauen ordezkari-lana egiten dute: merkataritza-ganberak, industriak eta nabigazioa; aurrezki-kutxak eta finantza-entitateak; kooperatibak; lan-sozietate anonimoak; arrantza-erakundeak; nekazaritza-erakundeak; kontsumitzaileen erakundeak eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak. Gaur egun, EHSSren ordezkaria organismo horretan Sareen Sarea da.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	8/2012 LEGEA, maiatzaren 17koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena.
Informazio gehiago	https://www.cesegab.com/eu-es/Erakundea/Osaera

2.2 Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saila

ORGANOA	ELKARRIZKETA ZIBILERAKO EUSKADIKO MAHAIA
Eratu zen urtea	2012
Deskribapena	Elkarriketa Zibilaren aldeko Mahaia gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko aholku-organo gorena da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esparruan. Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren eginkizuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren gizarte-politiketan eragina izatea da, bete gabeko gizarte-beharrak dituzten pertsonen ongizatea hobetzeko eta guztiz gizartera daitezen lortzeko. Era berean, xedea izango da laguntza ematea, gizarte-ekintzako hirugarren sektorea bera eta hartako plataformak eta sareak egituratzea eta sendotzea, eta haien arteko lankidetza-alderdia sustatzea. Elkarriketa Zibilerako Mahaiak hogeitaz kide izango ditu; lau kide Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoak izango dira, eta gainerako hamasei gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	283/2012 DEKRETUA, abenduaren 11koa, Elkarriketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzekoa.
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2012/12/1205791e.pdf

ORGANOA	MIGRAZIOAREN ETA ASILOAREN EAE-KO FOROA
Eratu zen urtea	2023
Deskribapena	2002an sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren ordezkari eratu da. Foroa kide anitzeko kontsulta-, informazio- eta aholku-organo plural gisa eratzen da, migrazio- eta asilo-politikekin lotuta. Foroak osoko bilkuran eta lan-batzordeen eta batzorde iraunkorraren bidez jardungo du. 40 ordezkari dira: euskal administrazioetako organismoak, foru-aldundiak, Eudel, hiru hiriburuetako udalak, hiru euskal unibertsitateak, Harresiak Apurtuz eta immigranteen Euskadiko GKE-en koordinakundea. Ordezkaritza handieneko sindikatuak eta enpresa-taldeak (Confebask, Konfekoop) ere parte hartzen dute, besteak beste.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	67/2023 DEKRETUA, maiatzaren 9koa, Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa sortzen duena.
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/migrazio-asilo-foroa/

ORGANOA	GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2008 (2006)
Deskribapena	Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua izan zenaren izen-aldaketa ekarri zuen; Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen bidez eratu zen. Gizarte-zerbitzuen gaineko aholku-organo bat da, eta EAEko gizarte-ekintza koordinatzen duen instantzia. Nahitaezko txostenak egiten ditu xedapen arauemaile, programa, plan orokor edo sektorialen proiektuei buruz; gobernuari aholku ematen dio eta proposamenak zein ekimenak helarazten dizkio; gizarte-ongizatearekin lotuta eragileek egiten dituzten iradokizunak, informazioa eta proposamenak jasotzen ditu, bai eta egin ere. Osoko bilkura eta batzordeak ditu. Osoko bilkuran honako partaide hauek daude: euskal administrazio publikoak (EAEkoak, foru-administrazioak eta tokian tokikoak), sindikatuak eta enpresa-elkarteak, gizarte-zerbitzuen alorrean diharduten erakunde profesionalak eta HHsko erakundeak (zehazki, erabiltzaileen erakundeak eta gizarte-boluntariotzako erakundeak). Adibidez, EHHSko erakunde hauek Kontseiluan parte hartzen dute: desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte koordinatzailea (Elkartean), adimen-degaitasuna dutenen aldeko elkartearen euskal federazioa (Fevas), gaixo psikikoen eta familiakoen elkartearen Euskadiko federazioa (Fedeafes) eta immigranteei laguntzeko Euskadiko GKE-en koordinakundea.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	159/2008 DEKRETUA, irailaren 16koa, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari buruzko Dekretua aldatzeko dena
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuen-euskal-kontseilua/web01-s2enple/eu/

ORGANOA	GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA: ADINEKOEN BATZORDE IRAUNKOR SEKTORIALA
Eratu zen urtea	2007
Deskribapena	EAEko adinekoak tartean dauden edozein jarduera-arlotako erakunde publikoak eta gizarte-eragileek parte hartzeko foro espezifikoak. Partaide hauek ditu: euskal administrazio publikoak (EAEkoak, foru-administrazioak eta tokian tokikoak), sindikatuak eta enpresa-elkarteak, adinekoen alorrean diharduten erakunde profesionalak eta adinekoen alorrean ordezkartza-lana egiten duten gizarte-erakundeak.

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2007ko otsailaren 27an egindako bileran lortutako akordioa.
--	--

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/organos_colegiados/eu_organos/adjuntos/Composici%C3%B3n%20y%20Funcionamiento%20Comisi%C3%B3n%20de%20Mayores%5b1%5d-eus.pdf
--------------------	---

ORGANOA	FAMILIA-BITARTEKARITZARAKO AHOLKU-BATZORDEA
----------------	--

Eratu zen urtea	2008
-----------------	------

Deskribapena	Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen bidez eratutako organo kolegiatu bat da, eta Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari aholku ematea du xedea, familia-bitartekaritzako gaitan. Partaideen artean (administrazio publikoak, elkargo profesionalak, unibertsitateak, etab.), familia-bitartekaritzako eta familiakoen arteko gatazketan arreta profesionala ematen duten erakunde hiru ordezkari daude, erakunde horiek izendatzen dituztenak.
--------------	---

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	84/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordeari buruzkoa.
--	--

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/familia-bitartekaritzako-aholkularitza-kontseilua/web01-s2enple/eu/
--------------------	---

ORGANOA	BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA
----------------	---

Eratu zen urtea	1998
-----------------	------

Deskribapena	Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legea onartu zenean eratu zen, topaketarako, aholkularitzarako eta kontsultarako organo gisa, boluntariotzaren inguruan. Besteak beste, funtzio hauek ditu: nahitaezko txostenak ematea boluntariotzari zuzenean eragiten dioten xedapen arauemaileen aurreproiektu eta proiektuei buruz, boluntariotzaren funtsezko beharrak detektatu eta aztertzea, euskal administrazio publikoei aholku ematea proposamen eta ekimenei buruz eta haiei helaraztea, EAEko boluntariotzaren egoerari buruzko txosten bat egitea urtero, etab. Euskal administrazio publikoek (EAEkoak, foru-administrazioak eta tokian tokikoak) eta boluntariotzako erakunde hiru ordezkari osatzen dute.
--------------	--

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	30/2003 DEKRETUA, otsailaren 18koa, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa
--	--

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/web01-s2enple/eu/contenidos/informacion/organos_colegiados/eu_organos/index.shtml#consvascovoluntariado
--------------------	---

ORGANOA	IJITO HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO KONTSEILUA
----------------	---

Eratu zen urtea	2003
-----------------	------

Deskribapena	Aholku-organu plurala da, xede hau duena: ijito herritarrekiko erabateko politika aktiboa garatzen laguntzea, ijito herritarren erabateko sustapenean oinarrituta. Euskal administrazio publikoekin batera, EAEko gobernu kanpoko erakundeek eta ijitoen eta ijitoen aldeko elkarteek hartuko dute parte.
--------------	--

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	289/2003 DEKRETUA, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortzen duena.
--	--

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/web01-s2enple/eu/contenidos/informacion/organos_colegiados/eu_organos/index.shtml#consejpueblogitano
--------------------	---

ORGANOA	FAMILIEN EUSKAL KONTSEILUA
---------	----------------------------

Eratu zen urtea	2008
-----------------	------

Deskribapena	Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen bitartez eratu zen. Organo horren bidez egituratzen da Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko koordinazioa eta lankidetzak familiei buruzko gaitan. Era berean, organo horretan gauzatzen da administrazio publikoetatik kanpo diharduten entitate eta pertsonen partaidetza. Familien Euskal Kontseiluan parte hartzen dute Familiaren Erakunde arteko Batzordeak, Familiaren Sail arteko Batzordeak eta Familiaren Batzorde Iraunkorrak. Familien babesean, arretan eta laguntzan diharduten gizarte-eragileek parte hartzeko foro espezifikoa da Familiaren Batzorde Iraunkorra.
--------------	--

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	53/2012 DEKRETUA, apirilaren 17koa, Familien Euskal Kontseiluarena.
--	---

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/web01-s2enple/eu/contenidos/informacion/organos_colegiados/eu_organos/index.shtml#consejovascofamilia
--------------------	---

ORGANOA	LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA
---------	--

Eratu zen urtea	2024 (2007)
-----------------	-------------

Deskribapena	Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legeak eratutako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari beste izen bat eman dio. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilu izenarekin jasota dago Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legean, eta, behin-behinean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko dekretuak arautzen du. Euskadiko lankidetzaren eta elkartasunaren arloko aholku- eta partaidetza-organo gorena da, eta gai horien gaineko politikan proposamenak, irizpenak eta jarraipena egin ditzake. Hiru mailetako euskal administrazio publikoko ordezkariak daude, bai eta EHSSko entitateak ere: Euskadiko GGKE-en Koordinakundea (presidenteordea) eta EAEko bederatzi GGKE-en bederatzi ordezkari, Koordinakundeak proposatutakoak.
--------------	---

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legearen 11. artikulua.
--	--

Informazio gehiago	https://www.elankidetz.euskadi.eus/garapenerako-lankidetzaren-euskal-kontseilua/webela01-eduki/eu/
--------------------	---

ORGANOA	BAKE- ETA BIZIKIDETZA-PLANAREN AHOLOKU-BATZORDEA
---------	--

Eratu zen urtea	2014 (2009)
-----------------	-------------

Deskribapena	Aurrekaria Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea da, otsailaren 10eko 31/2009 DEKRETUAK eratu zuena. Xedeetako bat da partaidetza-bide bat finkatzea bakea, bizikidetzak, giza eskubideak edo arlo horietako heziketa sustatzen duten gizarte-entitateentzat. Hiru mailetako euskal administrazio publikoek parte
--------------	--

	hartzen dute, eta, besteak beste, helburu nagusi eta funtsezko gisa bakea, bizikidetza eta giza eskubideak sustatzen dituzten EAEko elkarte zein erakundeetako lau ordezkariak.
--	---

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	157/2014 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Bake eta Bizikidetza Planaren Aholku Batzordea arautzen duena
--	--

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/bake-eta-bizikidetza-planaren-aholku-batzordea/web01-s2enple/eu/
--------------------	---

ORGANOA	ASTIALDI HEZIGARRIA KOORDINATZEKO MAHAIA
---------	--

Eratu zen urtea	2021
-----------------	------

Deskribapena	Astialdi Hezigarria Koordinatzeko Mahaia XII. Legegintzaldian eratu zen (2020-2024). Lankidetza publiko-sozialeko espazio bat da, eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak, Astialdi sareak (astialdi hezigarriko Euskadiko sareen sarea, Sareen Sarearen kide dena) eta Astialdi foroan dauden taldeek osatzen dute (Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak sustatutako espazioa). Mahaian astialdiko 100 talde baino gehiago daude. Astialdiko heziketa bultzatzeko 2030 Estrategian parte hartu du.
--------------	--

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	
--	--

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2023/astialdi-hezigarria-sustatzeko-2030-euskal-estrategia/
--------------------	---

ORGANOA	HAUR ETA NERABEENTZAKO EUSKAL KONTSEILUA
---------	--

Eratu zen urtea	2024 (2005)
-----------------	-------------

Deskribapena	Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen bidez eratu da, eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak eraturako Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialaren ordezkari da. Jada ez dago Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren mende. Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua gai horretako aholku-organo gorena da. Funtzio hauek ditu, besteak beste: lege-aurreproiektuak, xedapen orokorrak eta erregelamenduak ezagutzea, aholku ematea eta jarraipena egitea; eta haur zein nerabeei buruzko edozein gairen gaineko iradokizunak, proposamenak eta ekimenak jaso eta egitea. Ordezkaririk dituzte Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, alde batetik, eta EAEn haur zein nerabeen alorrean diharduten gizarte-entitateek, bestetik.
--------------	--

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Osaera, funtzioak eta funtzionamendu-araubidea zehazteko daude. Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 306. artikulua.
--	--

Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/02/2401066a.pdf
--------------------	---

2.3 Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioen Saila

ORGANOA	IRISGARITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA
---------	---

Eratu zen urtea	1997
-----------------	------

Deskribapena	Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak eraturako aholku-organo bat da. Irisgarritasunaren araudia aplikatzeari buruz ikertzea eta informazioa biltzea du zeregin nagusi. Organo horretan parte hartzen dute EAEko administrazio publikoek, ordezkaritzarik handieneko entitate asoziatiboek (haien xedea irisgarritasun-arazoak dituztenen eskubideak defendatzea izanik), kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeek, ordezkaritzarik handieneko
--------------	--

	sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteek eta elkargo hauek: arkitektoena, aparejadore eta arkitekto teknikoena, eta bide, ubide eta portuetako ingeniariena.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/web01-a2acces/eu/contenidos/informacion/cvpa_que_es/eu_cvpa/index.shtml
ORGANOA	EUSKADIKO HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZARAKO TOPAGUNEA
Eratu zen urtea	2006
Deskribapena	Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen bitartez eratu zen. Eusko Jaurlaritzako aholku-organismo bat da, etxebizitzarekin lotutako gaiak direla eta. Proposamenak, txostenak eta irizpenak ematen ditu, besteak beste. Partaide hauek ditu: etxebizitzarekin lotutako gaietan eskumena duena Eusko Jaurlaritzako saila, udalak, gazteen ordezkari diren kolektiboak, kontsumitzaileenak, elkargo profesionalenak, gizarte-kolektiboak eta etxebizitzarekin zerikusia duten enpresa-elkarteak eta sindikatuak.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	105/2008 DEKRETUA, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/hirigintza-eta-etxebizitzarako-topagunea/web01-s2ing/eu/

2.4 Osasun Saila

ORGANOA	MINBIZIARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMAREN KOORDINAZIO-BATZORDEA
Eratu zen urtea	2011
Deskribapena	Informazio-sistemaren gaineko ardura duen erakunde publikoari jarduera-proposamenak egitea du helburu, bai eta aholku- eta partaidetza-foro espezifikoak izatea ere. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko eta Osakidetzako ordezkariak gain, EAEn gehien errotuta dagoen minbiziaren kontrako elkarteak izendatzen duen norbait ere batzorde horretan aritzen da.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	66/2011 DEKRETUA, martxoaren 29koa, Minbiziari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Informazio Sistemarena
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/minbiziari-buruzko-informazio-sistemaren-koordinazio-batzordea/web01-s2osa/eu/
ORGANOA	ADIKZIOEN EUSKAL BATZORDEA
Eratu zen urtea	2016
Deskribapena	Adikzioen Euskal Batzordea da adikzioen aurkako borrokan diharduten gizarte-sektoreek parte hartzeko organo gorena. Era berean, aholku-organismoa da adikzioei buruzko lege-proiektu, erregelamendu eta planetan. Batzordekideen artean, elkarteak, irabazi-asmorik gabeko entitateak eta gobernu kanpoko erakundeak ordezkariak daude, baldin eta haien xedea bada adikzioen alorreko eta jokabide-adikzioak sortu ditzaketen jokabideen alorreko zeregin espezifikoak gauzatzea.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/adikzioen-euskal-batzordea/web01-s2osa/eu/
ORGANOA	EUSKADIKO ETIKA-BATZORDEAK KOORDINATZEKO BATZORDE SOZIOSANITARIOA
Eratu zen urtea	2022
Deskribapena	Diziplinarteko aholku-organismo bat da, eta haren helburua da osasungintzako (etika asistentzialeko batzordeak) eta gizarte-zerbitzuak (esku-hartze sozialeko etika batzordeak) etika-batzordeak koordinatzea. Eduki etikoko txostenak eta irizpenak ematen ditu gizarte-gaiei, osasun-gaiei eta gai soziosanitarioei buruz. EAEko administrazio publikoen, foru-administrazioen eta udal-administrazioen ordezkariak daude, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Osasun Sistemaren esparruan eskudun direnak. Dena den, Gorabideko etika-batzordeak ere parte hartzen du.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	150/2022 DEKRETUA, abenduaren 7koa, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzkoa
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/proiektua/euskadiko-etika-batzordeak-koordinatze-ko-batzorde-soziosanitarioa/web01-a2zesosa/eu/

2.5 Lan eta Enplegu Saila

ORGANOA	ENPLEGUAREN EUSKAL FOROA
Eratu zen urtea	2023
Deskribapena	Enpleguaren Euskal Foroa enplegurako politika publikoetan parte hartzeko organoa da. Funtzio hauek ditu: enpleguari buruzko proposamenak eta gomendioak ematea, Enpleguaren Euskal Estrategiarako txostenak egitea, Euskadiko hiru urteko enplegu-plana, tokiko enplegu- eta garapen-planak eta, hala badagokio, lurraldez lurraldeko enplegu-planak. Ordezkariek dituzte Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalerriek; Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak, EAEn ordezkaritza handiena duten sindikatuek eta sektore arteko patronalek; Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, langile autonomoek, Euskadiko lan-sozietateek, enpleguan diharduten EHSSko erakundeek, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek, enplegu-agentziek, klusterrek, lanbide-heziketako zentro integratuek eta trebakuntza-entitateek.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 83. artikulua.
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/12/2305767e.pdf
ORGANOA	INKLUSIORAKO EUSKAL KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2022 (2003)
Deskribapena	Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bidez eratu zen. 2003an sorturiko Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren ordez finkatu zen. Aholku eman eta parte hartzeko organo bat da. Nahitaezko txostenak egiten ditu, aholku ematen du, ekimenak proposatzen ditu, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenen oinarrizko beharrak detektatu eta aztertzen ditu, etab. Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako lanean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago. Ordezkariek dituzte Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek, EAEn ordezkaritza handiena duten sindikatuek eta sektore arteko patronalek, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, erabiltzaileen erakundeek, inklusioan diharduten EHHsko erakundeek eta gizarteratze-lanean aritzen diren profesionalen erakundeek.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144. artikulua.
Informazio gehiago	https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_normativa/eu_def_adjuntos/14_22_legea.pdf

2.6 Lehendakaritza

ORGANOA	TRANSIZIO SOZIALAREN ETA 2030 AGENDAREN ERAGILE ANITZEKO FOROA
Eratu zen urtea	2021
Deskribapena	Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa lankidetzaren eta aholku-organo bat da, 2030 Agendaren harmonizazioan eta garapenean laguntzeko Euskadiko politika publikoetan, eta euskal erakundeak lerrokatzeko nazioarteko ahaleginekin, Garapen Jasangarritako Helburuak (GJH) bultzatu eta betetzeari begira. Foroaren burua lehendakaria da. Presidenteordea, berriz, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren titularra, eta hari dagozkio koordinazio-funtzioak. Organoaren gainerako kideak eragile publiko eta pribatu ugari dira; besteak beste, EHSSko entitateen hiru ordezkari, Sareen Sareak proposatutakoak.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	166/2021 DEKRETUA, uztailaren 6koa, Euskadin Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa sortu eta arautzen duena.
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/eragile-anitzeko-foroa/web01-a2lehetr/eu/
ORGANOA	GJH-EN ALDEKO EUSKAL ALIANTZA
Eratu zen urtea	2023
Deskribapena	Ekimen honetan, lankidetzaren bilatzen da 2030 Agenda bera eta GJHak garatzeko lanean. Aliantza 55 entitatek sinatu dute, eta adierazpen bat du oinarri: 2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako. Bat egin duten entitateen artean EHSSko zenbait erakunde daude: Alboan, EDE Fundazioa, Eragintza Fundazioa, REAS Euskadi, Sareen Sarea eta UN Etxea, adibidez.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	GJHen aldeko Euskal Aliantza. Adierazpena 2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako.
Informazio gehiago	https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitza/-/gjen-aldeko-euskal-aliantza/

3 Lankidetzaren instituzionala EAEko Administrazio Orokorrekin: Arabako Foru Aldundia

3.1. Gizarte Politiken Saila

ORGANOA	ARABAKO GIZARTE-ZERBITZUEN LURRALDE-KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2010 (1988)
Deskribapena	Eusko Legebiltzarrak Gizarte Zerbitzuei buruz maiatzaren 20an emandako 6/1982 Legea da gizarte-ongizaterako lurralde-kontseiluen jatorria. Gizarte Ongizaterako Arabako Lurralde Kontseilua 1988an sortu zen. Arabako Foru Administrazioa aholku-organo kolegiatu bat da. Hartan, herritarrek parte hartzen dute; bereziki, gizarte-zerbitzuen eta ekimen pribatuko entitateen erabiltzaileek eta profesionalak parte hartzen dute, elkarrekin lantzeko gizarte-politiken eskumena duen Arabako Foru Aldundiari esleitutako eskumenen plangintza, funtzionamendua eta ebaluazioa.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	28/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua eratzen duena.
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2010/073/2010_073_04515.pdf
ORGANOA	DESGAITASUNAREN ARABAKO SEKTORE-KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2012
Deskribapena	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena. EHSSko hainbat entitatek parte hartzen dute.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2014/106/2014_106_04462_E.pdf
ORGANOA	INKLUSIOAREN ARABAKO SEKTORE-KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2012
Deskribapena	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena. EHSSko hainbat entitatek parte hartzen dute.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2014/106/2014_106_04462_E.pdf

ORGANOA	HAURREN, GAZTEEN ETA FAMILIEN ARABAKO SEKTORE-KONTSEILUA
---------	--

Eratu zen urtea	2012
Deskribapena	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena. EHSSko hainbat entitatek parte hartzen dute.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2014/106/2014_106_04462_E.pdf

ORGANOA	ADINEKOEN ARABAKO SEKTORE-KONTSEILUA
---------	--------------------------------------

Eratu zen urtea	2012
Deskribapena	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena. EHSSko hainbat entitatek parte hartzen dute.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2014/106/2014_106_04462_E.pdf

ORGANOA	ARABAKO LURRALDE-KONTSEILU SOZIOSANITARIOA
---------	--

Eratu zen urtea	2012
Deskribapena	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena. EHSSko hainbat entitatek parte hartzen dute.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2014/106/2014_106_04462_E.pdf

ORGANOA	ARABAKO GIZARTEGINTZAN ETIKA-BATZORDEA
---------	--

Eratu zen urtea	2011
Deskribapena	Aholku ematen du gatazka etiko posibleak konpontzeko, eta, halaber, erabakiak hartzeko ziurgabetasun-egoeretan, horrelakoak sortu daitezke-eta erabiltzaileekiko harreman-prozesuan. Azken helburua ematen den arreta hobetzea da. Besteak beste, batzorde horretan dihardute lanpostuan gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileekin zuzeneko harreman ohikoa dutenek.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	14/2011 FORU DEKRETUA, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan Gizartegintzan etika batzordeak sortzeko eta kreditatzeko modua arautzen da.

Informazio gehiago	https://www.ifbscalidad.eus/eu/
ORGANOA	ARABAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2011
Deskribapena	Aholku- eta partaidetza-organoa, Arabako administrazio publiko eskuduna, elkarte mugimendu eta, orokorrean, gizartea biltzen dituen, Arabako Lurralde Historikoko berdintasun politikak sustatzeko.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	27/2011 FORU DEKRETUA, apirilaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua sortu eta arautzen duen arautegia onartzen da.
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2011/046/2011_046_02281.pdf

3.2. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

ORGANOA	BIZIKIDETZA ETA KULTURARTEKOTASUNARI BURUZKO FORU-KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2008
Deskribapena	Aholku- eta partaidetza-organoa, Arabako administrazio publiko eskuduna, elkarte mugimendu eta, orokorrean, gizartearen artean partaidetza-guneak eratzeko xedea duena Arabako Lurralde Historikoan, arreta osoa emateko politikak eta ekintzak sustatzeko, bereziki migrazio-fluxuekin lotutako prozesuetan. Kontseiluko kide dira immigrazioaren eta kulturartekotasunaren alorretan lan egiten duten elkarteak edo entitateak.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	15/2011 FORU DEKRETUA, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Bizikidetza eta Kulturartekotasunari buruzko Foru Kontseilua sortu eta arautzen duen araudia onartzen da.
Informazio gehiago	https://web.araba.eus/eu/kulturartekotasuna/kulturartekotasunaren-kontseilua

3.3 Kultura eta Kirol Saila

ORGANOA	ARABAKO GAZTEEN PARTAIDETZARAKO LURRALDE-KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2018
Deskribapena	Kontseiluaren helburuetako bat da koordinazioa sustatzea eta harremanak bultzatzea beste partaidetza-organo batzuekin, bai eta gazterian diharduten entitateekin edo eskumena duten erakundeekin ere, gazteentzako politika globala lortu eta gazteen arazo eta kezkei erantzuteko. Gazteen elkarte ordezkaritza Kontseiluan gazteen eta/edo aisialdiko Arabako elkarte federazioen hiru ordezkaritza, aisialdian trebatzeko eskolen ordezkaritza bat eta federatu gabeko elkarteetako bi pertsona.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2018 Foru Dekretua, uztailaren 24koa. Onespenez ematea Arabako Gazteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua sortzeko eta kontseiluaren funtzionamendua arautzen duen araudiari.
Informazio gehiago	https://www.araba.eus/botha/Boletines/2018/089/2018_089_03038_E.pdf

4. Lankidetza instituzionala EAEko Administrazio Orokorrarekin: Bizkaiko Foru Aldundia

4.1. Gizarte Ekintza Saila

ORGANOA	GIZARTEAN ESKU HARTZEKO BIZKAIKO ETIKA-BATZORDEA
Eratu zen urtea	2006
Deskribapena	Gizartean Esku Hartzeko Bizkaiko Etika Batzordea diziplina anitzeko aholku-batzorde bat da, gizartean esku hartzen duten eragileen zerbitzura dagoena. Esku-hartze horretan sortu daitezkeen gatazkak nola konpondu aztertzeko eta aholku emateko eratu zen, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailean. Gizarte-alorreko eta alor soziosanitarioko esku-hartzean parte hartzen duten pertsonek osatzen dute: profesionalak, hartzaileak, elkarteak, erakundeak...
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Bizkaiko Foru Aldundiaren 232/2006 FORU DEKRETUA, abenduaren 26koa, Gizartean esku hartzeko Etika Batzordeak Sortzeko arauak ematen dituenak.
Informazio gehiago	https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/3474
ORGANOA	ARRETA GOIZTIARREKO ZENTROEN BATZORDE IRAUNKORRA
Eratu zen urtea	2019
Deskribapena	Arreta Goiztiarreko Zentroen Batzorde Iraunkorra Gizarte Ekintza Sailaren aholku-organo bat da, arreta goiztiarri buruzko erabakiak hartzeko. Espazio horretan, Gizarte Ekintza Sailak eta zentroen arduradunek iradokizunak eta proposamenak aztertzen dituzte arreta goiztiarreko zerbitzu publikoaren kudeaketa, antolaketa eta funtzionamenduari buruz, kalitatea sustatze aldera.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Bizkaiko Foru Aldundiaren 36/2019 FORU DEKRETUA, apirilaren 9koa; honen bidez, Arreta Goiztiarreko Zentro Itunduen Batzorde Iraunkorra sortu eta arautzen da.
Informazio gehiago	https://www.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza/organoak-eta-baliabideak/-/organos-y-canales/detalle/6799351
ORGANOA	OSASUN MENTALEKO ZENTROEN BATZORDE IRAUNKORRA
Eratu zen urtea	2020
Deskribapena	Gaixotasun mentalak dituztenentzako egoitzen eta eguneko arretarako foru-zerbitzua sustatu eta hobetzeko organo bat da Osasun Mentaleko Zentroen Batzorde Iraunkorra. Espazio horretan, aholku ematen da, kalitatea sustatu eta ziurtatzen da, eta, halaber, zentro guztietan printzipio berak aplikatzen direla bermatzen da, hartzaileekin, familiakoekin eta kudeaketan diharduten entitateekin batera.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Bizkaiko Foru Aldundiaren 48/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 2koa, Osasun Mentaleko Zentroen Batzorde Iraunkorra sortu eta erregulatzen duena.
Informazio gehiago	https://www.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza/organoak-eta-baliabideak/-/organos-y-canales/detalle/6799317
ORGANOA	BESTEREN LAGUNTZA BEHAR DUTEN ADINEKOEN EGOITZEN FORU-SAREKO ZENTROEN BATZORDE IRAUNKORRA

Eratu zen urtea	2005
Deskribapena	Besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen Foru Sareko Zentroen Batzorde Iraunkorra Gizarte Ekintza Sailaren aholku-organo bat da, erabakiak hartzeko xedea duena mendeko adinekoentzako egoitza-arretaren alorrean. Era berean, zentroek besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen foru-zerbitzu publikoaren kudeaketan parte hartzeko organo bat da.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	212/2005 FORU DEKRETUA, abenduaren 20koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena; honen bidez «Besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen foru sareko zentroen batzorde iraunkorra» sortu eta araupetu da.
Informazio gehiago	https://www.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza/organoak-eta-baliabideak/-/organos-y-canales/detalle/6799406

ORGANOA	ADINEKOEN KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2005
Deskribapena	Adinekoen Kontseilua 60 urtetik gorakoek parte hartzeko foro bat da, adinekoekin lotura duten entitate, elkarte eta erakundeen bidez. Hala, Bizkaiko herritar horien ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede. Funtzioaren eta bultzatzen diren ekintzen ardatz nagusia da Bizkaian zahartze aktiboa sustatzeko behar diren baldintza optimoak sortzea.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Bizkaiko Foru Aldundiaren 69/2020 FORU DEKRETUA, uztailaren 7koa, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua berregituratu eta arautzen den.
Informazio gehiago	https://www.bizkaia.eus/eu/adinekoen-kontseilua

ORGANOA	ELKARRIZKETA ZIBILERA KO BIZKAIKO MAHAIA
Eratu zen urtea	2016
Deskribapena	Elkarrizketa Zibilerako Mahaia elkarrizketa- eta lankidetzaren espazio bat da, Foru Aldundiaren ekintza osoari eta Bizkaiko HHSren sareei begira, esku-hartze sozialaren alorrean. Organo egonkor bat da, bi noranzkoko eta operatiboa, eta, handik, proiektuak eta beste ekimen batzuk sortzen dira lankidetzaren ondorioz, gizarte-politikak, partaidetza, gobernantza eta, azkenik, Bizkaiko herritarren gizarte-kohesioa eta inklusioa bultzatzeko. Era horretan, iritzia eman eta politika publikoetan parte hartzeko eskubidea gauzatu dezakete erakundeek eta sareek (eta, haien bitartez, esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateei). Bizkaiko HHSko 19 erakundek eta sareak parte hartzen dute, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Bizkaiko Foru Aldundiaren 154/2016 FORU DEKRETUA, urriaren 18koa, Bizkaiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia formalizatu eta arautzen duena.
Informazio gehiago	https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/6860

4.2. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

ORGANOA	EMAKUMEEN PARTAIDETZARAKO BIZKAIKO KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2020

Deskribapena	Kolektibo feministen, emakumeen elkarte zein taldeen eta Bizkaian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lanean ari diren beste entitate eta erakunde batzuen partaidetzarako eta solasaldirako espazio bat da Emakumeen Partaidetzarako Bizkaiko Kontseilua. Topagune bat da, parte hartzen duten emakumeek proposamenak, gogoetak eta ekarpena egitea duena xede, emakumeek gizartean duten zeregina eraldatzeko aukera ematen dutenak, horretarako ekarpena egiten dutenak eta, halaber, Bizkaia osoan bizi-baldintzak eta posizioa hobetzen dituztenak. Bizkaiko elkarte feministek eta emakumeen elkarteek osatzen dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak ere parte hartzen du.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Bizkaiko Foru Aldundiaren 17/2020 FORU DEKRETUA, otsailaren 18koa, zeinaren bidez sortzen baita Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua.
Informazio gehiago	https://www.bizkaia.eus/eu/herritarren-eta-gizartearen-partaidetza/organoak-eta-baliabideak/-/organos-y-canales/detalle/6799483

5. Lankidetzaren instituzionala EAEko Administrazio Orokorrekin: Gipuzkoako Foru Aldundia

5.1 Gobernantza Departamentua

ORGANOA	HERRITARREN PARTAIDETZARAKO GIZARTE-KONTSEILUA
Eratu zen urtea	2018
Deskribapena	Partaidetzari buruzko aholku-organoa. Gaur egun, HHSko erakunde hauek parte hartzen dute: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Nagusilan, Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen elkartea, Matia Fundazioa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan diharduten gobernuz kanpoko erakundeen ordezkari bat.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	25/2017 Foru Dekretua, abenduaren 19koa, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua arautzekoa.
Informazio gehiago	https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza/gizarte-kontseilua

ORGANOA	ELKARTEEN FOROA
Eratu zen urtea	2020
Deskribapena	Elkarteen Foroa topaketa- eta lankidetzaren espazio bat da herritarren partaidetza bultzatzen duten elkarreentzat eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako Zuzendaritzarentzat. Elkarteen Foroa osatzen duten herritarren erakundeek Gipuzkoako partaidetza sustatzen dute hainbat prozesu, proiektu eta ekimen baliatuz, Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzarekin batera.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	
Informazio gehiago	https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza/elkarteen-foroa.

5.2 Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua

ORGANOA	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADINEKOEN KONTSEILUA
Eratu zen urtea	1999
Deskribapena	Adinekoek eta adinekoekin lotura duten entitate, elkarte eta erakundeek parte hartzeko foro espezifiko bat da. Hala, herritar horien ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede. Besteak beste, Kontseiluan dihardute adinekoen alorrean lan egiten duten

	entitateen hiru ordezkariak eta adinekoen mendekotasunean lanean ari diren entitateen beste hiru ordezkariak.
--	---

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Urriaren 19ko 27/2010 FORU DEKRETUA, zeinaren bidez aldatzen baita 121/1999 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua sortzeko araudia onartzen duena.
---	---

Informazio gehiago	https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2010/10/25/c1011923.pdf
---------------------------	---

ORGANOA	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO EZINDUEN KONTSEILUA
----------------	--

Eratu zen urtea	2003
------------------------	------

Deskribapena	Desgaitasuna duten pertsonak eta desgaitasunarekin lotura duten entitate, elkarte eta erakundeek parte hartzeko foro espezifiko bat da. Hala, herritar horien ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede. Besteak beste, Kontseiluko kide dira desgaitasun fisikoa, sensoriala zein psikikoa eta gaixotasun mentala dutenen elkarteak 10 ordezkari.
---------------------	---

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	23/2018 Foru Dekretua, irailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita 32/2009 Foru Dekretua, urriaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarteratze Gaietako Aholku Kontseilua sortu eta arautzen duena.
---	--

Informazio gehiago	https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2018/09/19/c1806220.pdf
---------------------------	---

ORGANOA	GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTERATZE-GAIETAKO AHOLKU-KONTSEILUA
----------------	--

Eratu zen urtea	2009
------------------------	------

Deskribapena	Bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenak eta bazterketarekin lotura duten entitate, elkarte eta erakundeek parte hartzeko foro espezifiko bat da. Hala, herritar horien ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede. Esku-hartze sozialaren alorrean zerbitzuak ematen dituzten entitateen 10 ordezkariak dihardute Kontseiluan, beste kide batzuen artean.
---------------------	--

Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	23/2018 Foru Dekretua, irailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita 32/2009 Foru Dekretua, urriaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarteratze Gaietako Aholku Kontseilua sortu eta arautzen duena.
---	--

Informazio gehiago	https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2018/09/20/c1806219.pdf
---------------------------	---

ORGANOA	GIZARTEAN ESKU-HARTZEKO GIPUZKOAKO ETIKA-BATZORDEA
Eratu zen urtea	2007
Deskribapena	Diziplina anitzeko aholku-batzorde bat da, gizarte-arloko nahiz gizarte- eta osasun-arloko esku-hartzean parte hartzen duten pertsonen zerbitzura dagoena: profesionalak, hartzaileak, elkarteak, erakundeak... Esku-hartze horren ondorioz sortu daitezkeen gatazka etikoen ebazpenari buruz aztertze eta aholku emateko asmoz sortua, eta helburu nagusizat esku-hartze horren kalitatea hobetzea duena. Batzordearen erdia gutxienez lanpostuan gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileekin zuzeneko harreman sarria dutenak izango dira.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	Ekainaren 12ko 2007/46 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Gizarte Esku-hartze Erika Batzordeak sortzea arautzen duena.
Informazio gehiago	https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2007/06/18/bo070618.pdf#c0707105

5.3 Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirola Departamentua

ORGANOA	GIPUZKOAKO LANKIDETZA MAHAIA
Eratu zen urtea	2020
Deskribapena	Aholku-organo hau partaidetza-espazio eta komunikazio-bide bat da GGKE-en, gizarte zibilarren eta foru-administrazioaren artean. Mahaia osatzen dute Gipuzkoako GGKE-ek, GGKE-en Koordinakundeak eta immigranteen elkarteak.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	1/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Gipuzkoako Lankidetz Mahaia sortu eta arautzen duena.
Informazio gehiago	https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2020/01/23/c2000227.pdf

5.4 Diputatu Nagusia

ORGANOA	ELKARRIZKETA ZIBILERAKO GIPUZKOAKO MAHAIA
Eratu zen urtea	2023
Deskribapena	Elkarriketa zibilerako aholku-organoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako HSSko sareen artean. Xede hauek ditu: besteak beste, elkarrekin definitzea hirugarren sektore sozialera zuzendutako politiken ildo nagusiak, baita hirugarren sektore sozialeko entitateen eta Foru Aldundiaren artean adostutako gainerako politika publikoak ere; hirugarren sektore sozialaren lan eremuan inguruko hausnarketa partekatua sustatzea; lurraldeko hirugarren sektore sozialeko entitateen eskaerak bideratzea eta, horien bitartez, esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateenak; iritzia emateko eta politika publikoetan parte hartze aukera ematea.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	11/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa, Gipuzkoako Elkarriketa Zibilerako Mahaia sortzen eta arautzen duena.
Informazio gehiago	https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2023/06/26/c2304606.pdf

ORGANOA	GUNEA
Eratu zen urtea	2014
Deskribapena	Berdintasun-politiken eremuko partaidetzarako eta elkarriketarako espazioa da, berdintasunaren aldeko mugimendu feminista eta emakumeen elkarre-mugimenduaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoaren artekoa.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	9/2014 FORU DEKRETUA, martxoaren 18koa, GUNEA: Gipuzkoako berdintasunerako partaidetza eta elkarriketa espazioa sortzekoa.
Informazio gehiago	https://www.gipuzkoa.eus/documents/2556071/8108924/Funtzionamendu_gunea/d3470424-cd5e-8d02-6606-8998fe28d3e1

ORGANOA	ANIZTASUNAREN SAREA
Eratu zen urtea	2022
Deskribapena	Aniztasuneko II. Planaren esparruan sortu zen, eta Sareak aniztasunaren alde eta bereizkeriaren ezaren defentsan lan egiten duten 24 entitate biltzen ditu. Gipuzkoako aniztasuna ordezkatzen duten elkarteek eta entitateek elkarrekin lan egiteko espazio bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutakoa, Giza Eskubidetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiaren bidez. Aholku eman eta proposamenak egiten ditu. Parte hartzeko eta entzuteko espazio bat da, eta aholku eman, egiaztatu eta proposamenak egin ditzake.
Eratu eta/edo arautzen duen araudia edo akordioa	II. Aniztasun Foro Plana
Informazio gehiago	https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456908/23189376/DIPU22_AD_Red_Diversidad_EU_AF.pdf/63deff7f-9623-bf64-ef8d-98edc7921d1f?t=1663316165843

1. ERANSKINA: LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALEKO ORGANO ETA FORO EGONKORRAK ARLOAREN ARABERA

ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA
Euskadi	Ekonomia- eta Gizarte Kontseilua	Kontseiluaren helburua da ekonomia- eta gizarte-interesen partaidetza gauzatzea EAEko ekonomia- eta gizarte-politikan.
Euskadi	Elkarrizketa Zibilerako Euskadiko Mahaia	Elkarrizketa Zibilerako Mahaia gizarte-ekintzako hirugarren sektoreak erakundeetan parte hartzeko aholku-organo gorena da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esparruan.
Euskadi	Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa	Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa aholku-organo plurala da, xede hau duena: ijito herritarrekiko erabateko politika aktiboa garatzen laguntzea, ijito herritarren erabateko sustapenean oinarrituta. Euskal administrazio publikoekin batera, EAEko gobernuz kanpoko erakundeek eta ijitoen eta ijitoen aldeko elkarteek hartuko dute parte.
Euskadi	Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua	Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua aholku- eta partaidetza-organo gorena da eta gizarte-zerbitzuetan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago.
Euskadi	Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua: Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala	Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala EAEko adinekoak tartean dauden edozein jarduera-arlotako erakunde publikoek eta gizarte-eragileek parte hartzeko foro espezifiko da.
Euskadi	Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordea	Familia Bitartekaritzarako Aholku Batzordea familia-bitartekaritzaren gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dagoen aholku-organo bat da, eta gobernuari aholku ematen dio. Haatik, ez dago haren egitura hierarkian sartuta.
ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA

Euskadi	Boluntariotzaren Euskal Kontseilua	Boluntariotzaren Euskal Kontseilua aholku- eta topaketa-organo bat da. EAEko administrazioak boluntariotza sustatzeko duen konpromisoa egituratzeko helburua du, eta, aldi berean, boluntarioen, dagozkien erakundeen eta administrazioaren arteko harremana ziurtatu nahi du.
Euskadi	Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua	Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua aholku-organo plurala da, xede hau duena: ijito herritarrekiko erabateko politika aktiboa garatzen laguntzea, ijito herritarren erabateko sustapenean oinarrituta.
Euskadi	Familien Euskal Kontseilua	Familien Euskal Kontseilua aholku-organoaren zeregina da gizarte-eragileen partaidetza bideratzea familiei buruzko politika publikoak diseinatzeko orduan.
Euskadi	Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua	Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua Euskadiko lankidetzaren eta elkartasunaren arloko aholku- eta partaidetza-organo gorena da, eta gai horien gaineko politikan proposamenak, irizpenak eta jarraipena egin ditzake.
Euskadi	Bake eta Bizikidetza Planaren Aholku Batzordea	Bake eta Bizikidetza Planaren Aholku Batzordea aholku- eta partaidetza-organo bat da, Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntzako Euskal Plana kudeatu eta garatzeko.
Euskadi	Astialdi Hezigarria Koordinatzeko Mahaia	Astialdi Hezigarria Koordinatzeko Mahaia lankidetza publiko-sozialeko espazio bat da, EAEen astialdi hezigarria bultzatzeko.

ARLOA

ORGANISMOA

INFORMAZIOA

Euskadi	Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua	Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua aholku-organo gorena da, eta EAEko administrazio publikoek parte hartzeko foro espezifikoa. Ordezkarri-kopuru bera dute Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, batetik, eta EAEn haur zein nerabeen alorrean diharduten gizarte-eragileen askotariko multzoak, bestetik. Presidentea izaten da haur eta nerabeen gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburua.
Euskadi	Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua	Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua aholku-organo bat da, eta bertan parte hartzen dute administrazioek, entitateek eta desgaitasunak dituztenak ordezkatzen dituzten elkarteek, erabiltzaileek, sustatzaileek eta elkargo profesionalak. Irisgarritasunaren araudia aplikatzeari buruz ikertzea eta informazioa biltzea du zeregin nagusi.
Euskadi	Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea	Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea aholku-organo bat da, Eusko Jaurlaritzaren, udalen eta herritarren zerbitzura etxebizitzari buruzko gaietan.
Euskadi	Minbiziari buruzko Informazio Sistemaren Koordinazio Batzordea	Minbiziari buruzko Informazio Sistemaren Koordinazio Batzordearen funtzioa da jarduera-proposamenak egitea informazio-sistemaz arduratzen den erakunde publikoari, eta aholku- zein partaidetza-foro espezifikoa izatea.
Euskadi	Adikzioen Euskal Batzordea	Adikzioen Euskal Batzordea da adikzioen aurkako borrokan diharduten gizarte-sektoreek parte hartzeko organo gorena. Era berean, aholku-organoa da adikzioei buruzko lege-proiektu, erregelamendu eta planetan.
ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA
Euskadi	Euskadiko Etika Batzordeak Koordinatzeko Batzorde Soziosanitarioa	Euskadiko Etika Batzordeak Koordinatzeko Batzorde Soziosanitarioaren funtzioetako bat da txostenak egitea araudiari, proposamenei, esku-hartzei, programei, prozedurei edo protokoloari buruz, baldin eta etika- edo balio-gatazkak sortzen badira pertsonen duintasuna eta eskubideak

		errespetatzeari dagokionez, osasungintzako, gizarte eta osasuneko eta/edo gizarte-zerbitzuetako politiketan edo esku-hartzeetan.
Euskadi	Enpleguaren Euskal Foroa	Enpleguaren Euskal Foroa enplegurako politika publikoetan parte hartzeko aholku-organoa da.
Euskadi	Inklusiorako Euskal Kontseilua	Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako lanean eskumena duen aholku- eta partaidetza-organoa.
Euskadi	Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa	Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa topagune bat da, GJHak bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta entitate guztiek bateratze-lan eraginkorra egiteko aukera ematen duena.
Euskadi	GJHen aldeko Euskal Aliantza	GJHen aldeko Euskal Aliantza 55 entitatek sinaturiko ekimen bat da, 2030 Agenda bera eta GJHak garatzeko lanean lankidetzat bilatzen duena.
Araba	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua kide anitzeko aholku-organo bat da, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken eta Gizarte Politiken Sailari esleitutako eskumenen plangintzan, funtzionamenduan eta ebaluazioan parte hartzeko.
Araba	Desgaitasunaren Arabako Sektore Kontseilua	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena.
ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA
Araba	Inklusioaren Arabako Sektore Kontseilua	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena.
Araba	Haurren, Gazteen eta Familien Arabako Sektore Kontseilua	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena.

Araba	Adinekoen Arabako Sektore Kontseilua	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena.
Araba	Arabako Lurralde Kontseilu Soziosanitarioa	Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mendean dagoen kide anitzeko aholku-organo bat da, kontseilu horren osoko bilkurak 2012ko azaroaren 21ean adostuta eratu zena.
Araba	Arabako Gizartegintzan Etika Batzordea	Arabako Gizartegintzan Etika Batzordeak aholku ematen du gatazka etiko posibleak konpontzeko, eta, halaber, erabakiak hartzeko ziurgabetasun-egoeretan, horrelakoak sortu daitezke-eta erabiltzaileekiko harreman-prozesuan. Azken helburua ematen den arreta hobetzea da.
Araba	Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua	Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua aholku-eta partaidetza-organo bat da, Arabako Lurralde Historikoko berdintasunerako politikak bultzatzeko helburua duena.
ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA
Araba	Bizikidetza eta Kulturartekotasunari buruzko Arabako Foru Kontseilua	Bizikidetza eta Kulturartekotasunari buruzko Foru Kontseilua aholku-eta partaidetza-organo bat da. Arreta osoa emateko politikak eta ekintzak sustatzen ditu, bereziki migrazio-fluxuekin lotutako prozesuetan.
Araba	Arabako Gazteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua	Arabako Gazteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua partaidetza-organo bat da, gazteentzako politika globala lortu eta gazteen arazo eta kezkei erantzun nahi diena.

Bizkaia	Gizartean Esku Hartzeko Bizkaiko Etika Batzordea	Gizartean Esku Hartzeko Bizkaiko Etika Batzordea diziplina anitzeko aholku-batzorde bat da, gizarte-arloko nahiz gizarte- eta osasun-arloko esku-hartzean parte hartzen duten pertsonen zerbitzura dagoena: profesionalak, hartzailleak, elkarteak, erakundeak... Esku-hartze horren ondorioz sortu daitezkeen gatazka etikoen ebazpenari buruz aztertze eta aholku emateko asmoz sortua, eta helburu nagusizat esku-hartze horren kalitatea hobetzea duena.
Bizkaia	Arreta Goiztiarreko Zentroen Batzorde Iraunkorra	Arreta Goiztiarreko Zentroen Batzorde Iraunkorra Gizarte Ekintza Sailaren aholku-organo bat da, arreta goiztiarrari buruzko erabakiak hartzeko.
Bizkaia	Osasun Mentaleko Zentroen Batzorde Iraunkorra	Gaixotasun mentala dituztenentzako egoitzen eta eguneko arretarako foru-zerbitzua sustatu eta hobetzeko organo bat da Osasun Mentaleko Zentroen Batzorde Iraunkorra .
Bizkaia	Besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen Foru Sareko Zentroen Batzorde Iraunkorra	Besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen Foru Sareko Zentroen Batzorde Iraunkorra Gizarte Ekintza Sailaren aholku-organo bat da, erabakiak hartzeko xedea duena mendeko adinekoentzako egoitza-arretaren alorrean. Era berean, zentroek besteren laguntza behar duten adinekoen egoitzen foru-zerbitzu publikoaren kudeaketan parte hartzeko organo bat da.
ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA
Bizkaia	Adinekoen Kontseilua	Adinekoen Kontseilua 60 urtetik gorakoek parte hartzeko foro bat da, adinekoekin lotura duten entitate, elkarte eta erakunde bidez. Hala, Bizkaiko herritar horien ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede.
Bizkaia	Elkarrietzeta Zibilerako Bizkaiko Mahaia	Elkarrietzeta Zibilerako Mahaia elkarrietzeta- eta lankidetzeta-espazio bat da, Foru Aldundiaren ekintza osoari eta Bizkaiko HHSren sareei begira, esku-hartze sozialaren alorrean.

Bizkaia	Emakumeen Partaidetzarako Bizkaiko Kontseilua	Kolektibo feministen, emakumeen elkarte zein taldeen eta Bizkaian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lanean ari diren beste entitate eta erakunde batzuen partaidetzarako eta solasaldirako espazio bat da Emakumeen Partaidetzarako Bizkaiko Kontseilua .
Gipuzkoa	Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua	Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua partaidetzaren inguruko Gipuzkoako aholku-organo bat da.
Gipuzkoa	Elkarteen Foroa	Elkarteen Foroa topaketa- eta lankidetz-espazio bat da herritarren partaidetza bultzatzen duten elkarreentzat eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako Zuzendaritzarentzat.
Gipuzkoa	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua kide anitzeko aholku-organo bat da, eta adinekoek zein haiekin lotura duten entitate, elkarte eta erakundeek parte hartzeko foro espezifiko bat. Hala, adinekoen ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede.

ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA
Gipuzkoa	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ezinduen Kontseilua	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua kide anitzeko aholku-organo bat da, eta desgaitasuna dutenek zein haiekin lotura duten entitate, elkarte eta erakundeek parte hartzeko foro espezifiko bat. Hala, desgaitasuna dutenen ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede.
Gipuzkoa	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarteratze Gaietako Aholku Kontseilua	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarteratze Gaietako Aholku Kontseilua kide anitzeko aholku-organo bat da, eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenek eta bazterketarekin lotura duten entitate, elkarte eta erakundeek parte hartzeko foro espezifiko bat. Hala, Bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden ongizateari begira taxutzen diren politikak eta jarduerak planifikatu, gauzatu eta jarraipena egitea du xede.

Gipuzkoa	Gizartean Esku-hartzeko Gipuzkoako Etika Batzordea	Gizartean Esku-hartzeko Gipuzkoako Etika Batzordea diziplinarreko egitura duen aholku-organo independente bat da. Gizarte-zerbitzuetan diharduten pertsonen eta entitateen zerbitzura dago, eta esku-hartze sozialeko jardunbide egokiei buruz gogoeta egin eta sustatzea du helburu, arretaren kalitatea hobetzeko.
Gipuzkoa	Gipuzkoako Lankidetzaren Mahaia	Gipuzkoako Lankidetzaren Mahaia ren helburua da Gipuzkoako gizartearen partaidetza indartzea lankidetzaren sareetan eta elkartasuna sustatzea.
Gipuzkoa	Elkarriketa Zibilerako Gipuzkoako Mahaia	Elkarriketa Zibilerako Gipuzkoako Mahaia aholku-organo bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako HSSko sareen artean.
ARLOA	ORGANISMOA	INFORMAZIOA
Gipuzkoa	Gunea	GUNEA partaidetzarako eta elkarriketarako espazioa da Gipuzkoako Foru Aldundian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako.
Gipuzkoa	Aniztasunaren Sarea	Aniztasunaren Sarea Gipuzkoako aniztasuna ordezkatzen duten elkarteek eta entitateek elkarrekin lan egiteko espazio bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutakoa, Giza Eskubidetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiaren bidez.